

Trafiko etenak San Silbestre egunean

Azken eguneratzea: Asteartea, 26 Abendua 2017 11:45

Argitaratua: Asteartea, 26 Abendua 2017 11:42



San Silbestre krosa dela eta herri-barruko trafikoa etenda geldituko da, igandean hilak 31, goizeko 11:30etatik 13:00etara bitartean.

Goizeko 10:15etatik aurrera umeen San Silbestre krosa ospatzeko ibilgailuentzako itxiko diren kaleak hauek izango dira: Nafarroa etorbidea 1etik 25era - Trenbide eta Joan Iturralde kaleak (Zaldizurreta kaleko biribilgunetik Barrendain plazaraino doan noranzkoa) - Erauskin plaza osoa.

Beasain-Ordizia noranzkoa Trenbide eta Joan Iturralde kaleetatik Zaldizurreta kaleko biribilgunerantz bideratuko da.

Ordizia-Zumarraga noranzkoa, irekita mantenduko da.

Herria zeharkatu behar duten gidariei, autobidea erabiltzea eskatzen zaie.